

**MONTENEGRO.** Udaberrian egingo dira presidentetzarako hauteskundeak hirugarren aldiz

# Oposizioa gustura agertu da bozak baliorik gabe geratu direlako

Nahiz Gobernuak hautagaiak irabazi, parte-hartzea ez da %50era iritsi

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Igandean egin ziren Montenegroko presidentea aukeratzeko hauteskundeak eta, joan den abenduan bezala, herenegun ere %50 baino txikiagoa izan zen parte-hartzea; %47 ingurukoa, hain zuzen ere. Ondorioz, baliorik gabe geratu ziren lortutako emaitzak. Iazko abenduaren 22an egindako hauteskundeetan gertatu bezala, herenegun ere Sozialisten Alderdi Demokratikoko (DPS) hautagai Filip Vujanovic izan zen gehien-goia lortu zuena. Indarrean dagoen alderdiko hautagaiak bozen %82 eskuratu zuen.

Atzo berriro oposizioak bozak bertan behera utzi izana ospatu zuen. Montenegroko Herri Alderdi Sozialistako (SNP) buru den Dragan Koprivicak bozkatzera joan ez ziren herritarrak zoriondu zituen, Gobernuaren presioei aurre egiteagatik. Filip Vujanovic Parlamentuko buruak bere aldetik, hauteskundeetako parte-hartzearen inguruko legea deusezteko beharra nabarmendu zuen. «Zentzurik

ez duen egoera batean murgilduta dago Montenegro oposizioaren erruz», esan zuen Vujanovicek.

Adituen arabera, Gobernuak bi aukera ditu orain: biztanleriaren erdiaren parte-hartzea beharrezkoa dela dioen legea bertan behera utzi eta hirugarren aldiz hauteskundeak antolatzeta, eta Parlamentuaren esku uztea presidentearen aukeraketa. Iturri ofizialen arabera, lehen aukera hautatuko du Gobernuak eta datorren udaberrian izango dira bozak. Hala ere, oraindik ez dute data zehatzik jakinarazi.

## Gobernuaren aurkako salaketak

Oposizioko kideen arabera, Gobernuak funtzionarioak bere alde bozkatzera behartu zituen. Horrez gain, duela egun batzuk Zoran Piperovic fiskalak eta beste bi diputatu aske geratu ziren. Joan den urtean prostituzio kasu batekin ustez loturik zeudela-eta atxilotu egin zituen Poliziak, baina lekuko nagusia desagertu egin denez, aske geratu ziren hirurak. Oposizioko taldeen esanetan, egoera horretan alferrekoa zen hauteskundeak antolatzeta.

Gobernuan dagoen alderdiaren arabera, ordea, hauteskundeetara ez aurkezteko arrazoia ez da hori izan, euren hautagai nagusiak istripua eduki izana baizik.



SASA MARICIC / EPA

Filip Vujanovic DPSko hautagaia eta Parlamentuko bozeramailea.

Elizabeth Roberts Montenegroko adituaren arabera, presidentea hautatuz gero ere, azken erabakia hartzeko erantzukizuna Milo Djukanovic lehen ministroaren esku geratuko litzateke, eta, ondorioz, herritarrek ez dute presidente baten beharrik nabaritzen.

Joan den astean Serbiak eta Montenegroko estatu berria osatu zuten, eta zenbait eskumen norberaren esku egon arren, besteak batera erabakiko dituzte. Oposizioa, ordea, ez dator bat bi herrialdeen arteko harreman berriekin, eta bozetan ez parte hartzeko dei egiten zuten.

## SUITZA

**Erabakitzeke ahalmen handiagoa izango dute herritarrek aurrerantzean**

Agentziak | **BERNA**

Bi erreforma erabaki ziren herenegun Suitzan egin zen erreferendum batean: atzerri politikan herritarrek izango duten parte-hartzea handitzea eta lege berriak onartzeko prozesua aldatzea. Erreferendumak erantzun txikia izan zuen arren —biztanleriaren %28k parte hartu zuen— gehien-goia, %70, aldaketak egitearen alde agertu zen. Ruth Metzler Justizia ministroaren arabera, pozteko moduko emaitzak izan ziren igandekoak.

## Aldaketak

Erreforma horiei esker, herritarrek beste herrialdeetako harremanetan Suitzako Gobernuak hartu beharreko jarreraren inguruan erabakiak hartzeko aukera izango dute.

Horrez gain, Parlamentuan lege berriak onartuko dira, erreferendumean horren alde egiten bada eta 100 mila sinadura biltzen badira. Orain arte, sinadura horiek beste erreferendum bat egiteko aukera eskaintzen zuten, eta onartuz gero Parlamentuak Konstituzioari emendakion bat egitekoa.

Datorren erreferenduma maiatzaren 18an egingo da, eta, horren bitartez, Armadan egin beharreko hainbat erreformarekin aurrera egin ala ez erabakiko da.

**Bihar** **UNI**

Egunkaria



**Manu Monterori elkarrizketa**  
**NUPEko kultur ekintzak aztergai**  
**Deustuko kuxkuxero errukidabeak**  
**Informatika: birusak eta Microsoft**

...zure independentzia

